



2019



[etxeparesaria.eus](http://etxeparesaria.eus)

**Asier Iturralde Glez. de Alaiza eta Aintzane Usandizaga Lopez** egileek irabazi dute 2019ko Etxepare saria **ETXE HONETAN** albumarekin

**Asier Iturralde Glez. de Alaiza y Aintzane Usandizaga Lopez** han ganado el premio Etxepare 2019 con el álbum **ETXE HONETAN**

Etxepare sarian **23** lan aurkeztu dira, inoizko ediziorik emankorrena.

A esta edición se han presentado **23** obras, la más fructífera.

**Lan irabazlea:** Etxean arauak jartzera ohituta dagoen aitatxi baten eta honen egunerokotasuna eta errutina hankaz goiti paratzera datorren ilobaren arteko harremana da gaia.

**Obra premiada:** El tema versa sobre la relación entre un abuelo que está acostumbrado a establecer normas y su nieta que viene a poner patas arriba su día a día y rutina.

Edonori ezagunak egin ahal zaizkigun egoerak bizitasunez kontatu eta marraztu dituzte autoreek, umorea maisuki erabiliz eta irribarrea lehen minututik sorraraziz. Irakurleak erabaki dezala nork agintzen duen **ETXE HONETAN**.

Los autores han contado e ilustrado situaciones que son muy conocidas para cualquiera, utilizando el humor magistralmente y arrancándonos la sonrisa desde el minuto uno. Que las lectoras y los lectores decidan quién manda en **ETXE HONETAN**.

#### **Epaimahaia:**

Leire Bilbao (idazlea)

Leire Salaberria (ilustratzailea)

Idoia Sobrino (liburuzaina)

#### **Jurado:**

Leire Bilbao (escritora)

Leire Salaberria (ilustradora)

Idoia Sobrino (bibliotecaria)

#### Epaimahaikideek azpimarratutakoa:

*“Egileek ederki uztartu dituzte hitza eta irudia komikiaren trazuak dituen album eder honetan.*

*Hitz gutxi baina nahikoen bitartez topikoetatik ihes egiten du eta lerro artean erakusten digu familia amak, osabak eta aipatutako bi pertsonaiek osatzen dutela, aitatxi agure zahar bat ez den gizon euskaldun moderno bat dela eta bera dela zaintza lanetaz eta kozinatzeaz arduratzen dena (errezeta bat eta guzti ematen digu!).*

*Irudi aldetik, aipatzekoak dira erabili diren errekurtsu narratiboak: etxea bera bertze pertsonaia baten moduan tratatua izan da eta istorioan pasatzen dena azaltzen laguntzen digu. Marrazkiek kontakizunari ekarpena egiten diote eszena bakoitzean eta bertan pausatuta eta goitik behera detaileei begira egotera gonbidatzen gaituzte.”*

#### Aspectos que ha subrayado el jurado:

(Texto traducido)

*“Los autores han armonizado perfectamente la palabra y la imagen en este magnífico álbum que tiene trazos de cómic.*

*Con pocas palabras, pero las suficientes, escapa de los tópicos y nos muestra entre líneas que la familia la forman la madre, el tío y los dos personajes señalados, que el abuelo no es un anciano sino un hombre euskaldun moderno encargado de las tareas de cuidar y cocinar (¡hasta nos da una receta!).*

*Respecto a la imagen, son de resaltar los recursos narrativos utilizados: la casa misma es tratada como otro personaje y nos ayuda a comprender la historia. Las ilustraciones aportan a la narración en cada escena, y nos invitan a quedarnos, pausadamente, mirando a los detalles de principio a fin.”*



# 2019



[etxeparesaria.eus](http://etxeparesaria.eus)

**Saria:** Sari bakarra eman da, 5.000 eurokoa, egile eskubideen aurrerapen moduan.

**Argitalpena:** Saritutako lana Pamiela argitaletxeak argitaratuko du, euskaraz, 2019ko udazkenean.

#### **Saridunei buruzko informazioa:**

Iruñeko Udalak, Etxepare saria programan barne, antolatzen duen Biko-Teka topaketetan hartu dute parte saridun biek; bata idazle moduan (Aintzane Usandizaga) eta besteak ilustratzaile lanetan (Asier Iturralde).

#### Asier Iturralderen biografia eta argitalpenak:



**Asier Iturralde Gonzalez de Alaiza**, Donostian jaioa, Arte Ederretan lizentziatua, irudigilea eta diseinugile grafikoa.

Diseinu estudio eta agentzia ezberdinentzako hasten da lan egiten (Gramma, Trace, Verno, Alude,...).

2004an, beste diseinugile batekin, La Machine Factoría Gráfica sortzen du, erakunde eta enpresentzako grafika eta ilustrazio lanak egiten.

2017an, ilustrazio eremua sakontzearen, bide berri bati ekiten dio Studio GASTON sortuz. Batez ere, erakundeentzako egiten du lan, kultura eta gazteri arloetan bereziki.

Komikizale amorratua, bere aisialdiaren zati galanta eskaintzen dio, eta hainbat sari eta aipamen lortu ditu: Portugalete (2 aldiz), KMK, DEIA, Kutxa Kultur,... Komiki erakusketetan ere parte hartu du: Rekalde Aretoa, Sala Kutxa,... Balmaseda 700. urteurrena komikia argitaratu eta *El Balancín* urtekarian ere parte hartu du.

Onlineko komiki astekaria argitaratzen du [www.betiberdintaberna.art](http://www.betiberdintaberna.art) Webgunean. Euskal Irudigileak, EIDE Basque Design eta Galtzagorri elkarteetako kidea da.

**Premio:** Se ha concedido un único premio de 5.000 €, como adelanto de derechos de autoría.

**Publicación:** La obra premiada lo publicará la editorial navarra Pamiela, en euskera, en otoño de 2019.

#### **Información sobre los autores de la obra:**

Las dos personas premiadas han participado en los encuentros Biko-Teka del Ayuntamiento de Pamplona, dentro del programa Etxepare saria; Aintzane Usandizaga como escritora y Asier Iturralde como ilustrador.

#### Asier Iturralde, biografía y publicaciones:



**Asier Iturralde Gonzalez de Alaiza**, nacido en Donostia, licenciado en Bellas Artes, ilustrador y diseñador gráfico.

Comienza trabajando para diversos estudios y agencias de diseño (Gramma, Trace, Verno, Alude,...).

En 2004, junto con otro diseñador, crean La Machine Factoría Gráfica, y realizan trabajos de gráfica e ilustración para instituciones y empresas.

En 2017, con el objetivo de ahondar en el ámbito de la ilustración, crea Studio GASTON con una nueva trayectoria. Trabaja sobre todo para instituciones, concretamente en las áreas de cultura y juventud.

Entusiasta de los cómics –les dedica una buena parte de su ocio-, y ha recibido diversos premios y menciones: Portugalete (2 veces), KMK, DEIA, Kutxa Kultur,... Ha participado en exposiciones de cómics: Rekalde Aretoa, Sala Kutxa,... Ha publicado el cómic *Balmaseda 700. urteurrena*, y ha participado también en el anuario *El Balancín*.

Publica el cómic semanal online en la Web [www.betiberdintaberna.art](http://www.betiberdintaberna.art). Es miembro de Euskal Irudigileak, EIDE Basque Design y Galtzagorri.



# 2019

[etxeparesaria.eus](http://etxeparesaria.eus)

[Aintzane Usandizaga Lopezen biografia eta argitaratutako lanak:](#)

[Aintzane Usandizaga Lopez, biografía y trabajos publicados:](#)



**Aintzane Usandizaga Lopez**, Lasarte-Orian jaioa, Artearen Historian lizentziatua (EHU), Kultura Artistikoaren Gizarte Garapenetan Graduondokoa (Malagako Unibertsitatea).

Proiektu eta zentro kultural ezberdinetan lan egin du.

Oroitzen duenetik maite ditu istorioak, haurra zenetik izan du hauek entzun eta asmatzeko grina.

2014an, Zumaiako Udalak antolatzen duen Julene Azpeitia ipuin lehiaketako lehen saria eskuratu zuen, eta 2018an bigarrena.

2019ko udaberrian *Kabitu ezina* liburua argitaratu du Elkar argitaletxearekin.

**Aintzane Usandizaga Lopez**, nacida en Lasarte-Oria, licenciada en Historia del Arte (UPV), posgrado en Desarrollos Sociales de la Cultura Artística (Universidad de Málaga).

Ha trabajado en diversos proyectos y centros culturales.

Ama las historias desde que tiene recuerdo, desde la infancia le apasiona escucharlas y crearlas.

En 2014 fue galardonada con el primer premio en el certamen Julene Azpeitia que se celebra en Zumaia, y el segundo premio en 2018.

En primavera de 2019 ha publicado el libro *Kabitu ezina*.

**Antolatzaileak:** Etxepare saria Nafarroako 22 toki entitatek, haien euskara zerbitzuen bidez, antolatzen dute. Hona zerrenda:

- Agoizko Udala Ayuntamiento de Aóiz
- Antsoaingo Udala Ayuntamiento de Ansoáin
- Atarrabiako Udala Ayuntamiento de Villava
- Barañaingo Udala Ayuntamiento de Barañáin
- Baztango Udala Ayuntamiento de Baztan
- Berriobeitiko Udala Ayuntamiento de Berrioplano
- Berriozarko Udala Ayuntamiento de Berriozar
- Bortzirietako Euskara Mank. Mancom. de Euskera de Bortziñak
- Burlatako Udala Ayuntamiento de Burlada
- Esteribarko Udala Ayuntamiento de Esteribar
- Galar Zendeako Udala Ayuntamiento de Cendea de Galar
- Garesko Udala Ayuntamiento de Puente la Reina

**Organizadores:** El Premio Etxepare lo organizan 22 entidades locales de Navarra, a través de sus servicios de euskera. La relación de ellas es la siguiente:

- Irantzu Mankomunitatea Mancomunidad de Irantzu
- Iruñeko Udala Ayuntamiento de Pamplona
- Nafarroako Iparraldeko Euskara Mank. Mancom. de Euskera del Norte de Navarra
- Lizarrako Udala Ayuntamiento de Estella
- Malerekako Mankomunitatea Mancomunidad de Malerrea
- Sakanako Mankomunitatea Mancomunidad de Sakana
- Tafallako Udala Ayuntamiento de Tafalla
- Uharteko Udala Ayuntamiento de Huarte
- Zaraitzu eta Erronkariko Batzorde Nagusiak Juntas Generales de Salazar y Roncal
- Zizur Nagusiko Udalaren Kultur Patronatua Patronato de Cultura del Ayuntamiento de Zizur Mayor



# 2019



[etxeparesaria.eus](http://etxeparesaria.eus)

**Laguntzaileak:** Pamiela argitaletxea eta Galtzagorri elkarteak.

**Babeslea:** Nafarroako Gobernua – Euskarabidea.

**Sariaren historia:** Nafarroako 22 toki entitatek, haien euskara zerbitzuen bidez, Nafarroan literatura sari esanguratsu baten hutsunea zegoela ikusirik, eta, beraz, literatur lehiaketen alorrean erreferentzia izanzen saria sortzeko xedearekin, Etxepare sariak antolatu zituzten 2004an. Etxepare sariak haur, gazte eta helduentzako literatura saritu zuten bi ediziotan.

2006tik aurrera, Etxepare haurrentzako albumak sortzeko beka bihurtu zen, euskaraz sortutako albumen produkzioa sustatzeko helburuarekin. Izan ere, euskaraz argitaratzen diren album gehienak itzulpenak dira, eta ez euskaraz sortuak. Euskarazko album sorrera bultzatzen duen beka edo lehiaketak urriak dira, eta, alde horretatik, ekimen berritzailea dugu hau.

2009az geroztik Etxepare beka izateari utzi eta saria bilakatu da. Horiek horrela, lehiatuko diren albumak bukatuta aurkeztu beharko dituzte lehiakideek.

Bestalde, albumak dituen ezaugarriengatik garestia da bere produkzioa. Argitaratzeko zailtasun hori bihurtzen da, hain zuzen, albumak sortzeko oztopo nagusi. Beraz, Etxepare sariaren helburuak betetzeko ez da nahikoa saria ematearekin, lanak argitaratzen ere lagundu behar da. Horrela, saritutako lana Pamiela argitaletxe nafarrak argitaratzen du.

**Colaboran:** Editorial Pamiela y Galtzagorri Elkarteak.

**Patrocina:** Gobierno de Navarra – Instituto Navarro del Euskera.

**Trayectoria del Premio:** Un grupo de entidades locales de Navarra (22), a través de sus servicios de euskera, ante la inexistencia de un premio literario de cierta relevancia en euskera, y, por tanto, con el objetivo de crear un certamen que sirviera de referencia en el campo de los concursos literarios, crearon los premios literarios Etxepare en 2004. Estos premios, en sus dos primeras ediciones, galardonaron la literatura dirigida a niños y niñas, jóvenes y personas adultas.

A partir de 2006, Etxepare se convirtió en una beca para la creación de álbumes infantiles, con el objetivo de impulsar la producción de textos ilustrados creados en euskera, dado que la mayoría de los álbumes que se publican en euskera son traducciones. Son muy escasos las becas o concursos que impulsan la creación de álbumes en euskera, y, desde ese punto de vista, ésta es una actividad innovadora.

En el año 2009 Etxepare dejó de ser una beca para convertirse en premio, de forma que, actualmente, las obras se presentan en álbumes terminados.

Por otro lado, y debido a las características propias de los álbumes, su producción es cara. Esa característica para su publicación es lo que se convierte en el impedimento principal para crear álbumes. Por tanto, para lograr los objetivos del premio Etxepare, no es suficiente con dar el premio, también hay que impulsar la publicación de los trabajos. Así que, la editorial navarra Pamiela es la que publica la obra premiada.



2019



[etxeparesaria.eus](http://etxeparesaria.eus)

**Aurreko edizioetako saridunak:**

**Premiados y premiadas en ediciones anteriores:**

Urtea/ Año	Lana/ Obra	Egileak/ Autores y autoras
2018	<i>Cosimoren katiuskak</i>	Dani Mariarena & Ana Ibañez
2017	<i>Arraroa</i>	Ainara Azpiazu (Axi) & Paula Estévez
2016	<i>Zerua gris dago</i>	Liébana Goñi & Isaak Martínez
2015	<i>Munstroek ere pixa egiten dute ohean</i>	Pello Añorga & Jokin Mitxelena
2014	<i>Hiltzaileak</i>	Leire Salaberria
2013	<i>Gerrak ez du izenik</i>	Leire Bilbao & Maite Mutuberria
2011	<i>Hara!</i>	Miren Asiain
2010	<i>Euria ari duenean</i>	Leire Salaberria
2009	<i>Alex, nire laguna</i>	Mikel Gurrutxaga & Maite Gurrutxaga
2008	<i>Katalina kontalari</i>	Iñaki Zubeldia & Estibalitz Jalón
2007	<i>Zirkua amets</i>	Joxan Ormazabal & Iraia Okina

Irabazleekin harremanetan jartzeko:

Para contactar con las personas premiadas:

**Asier Iturralde Glez. de Alaiza – 699 280 314 – [asier@estudiogaston.design](mailto:asier@estudiogaston.design)**

**Aintzane Usandizaga Lopez – 636 691 576 – [usandizaga.aintzane@gmail.com](mailto:usandizaga.aintzane@gmail.com)**